


## erakusketak

• Amable Ariasen pintura eta paper gaineko obra. Galeria 16n, uztailaren 15era bitartean.



• Galeria artisten talde erakusketak. Echeberria galerian (Zubieta 18-20), uztailaren 21era arte.

• Alberto Peralen pintura lanak. Galeria DVn, uztailaren 15era bitartean.

• Matematikak eta artea. Bulebarreko Kutxa aretoan (Bulebar 1), uztailaren 10era bitartean.

• "Sensaciones, percepciones y emociones en blanco y negro". Argazkilaritza elkartearen (San Joan 17), uztailaren 18ra arte.

• "Móviles, pinturas y dibujos". Jose Mari Salaberriaren lanak ikusgai. Arteko Galerian (Secundino Esnaola 3), abuztuaren 5era arte.

• "Afrika". Manu Lopetegiren oleoak. Digitex galerian (Usandizaga 5).

• "Pasaporte baterako argazkiak". Xabier Ubedaren argazkiak ikusgai. La Roca argazki galerian (Arroka 3), uztailaren amaierara arte.

## Kultur trukaketa

Gazteria, Lankidetzeta eta Tolerantzia bulegoaren ekimenez, Donostiako gazte talde batek Alemaniako Wiesbaden hirian kanpaldia egingo du, uztailaren 26tik abuztuaren 6ra bitartean. Donostiako neska-mutilak Austria, Polonia edota Eslobeniako gazteekin izango dira eta

herrialde hauetako ohiturak ezagutzeko aukera izango dute. Gainera, graffiti, breakdance eta disk jockey tailerak antolatuko dira, besteak beste. Egitasmo hau 15 eta 20 urte bitarteko gazteentzat bideratuta dago. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943481396 telefonora hots egin daiteke.



## Altxa misterioak Jota

"Misión imposible 2" edota "Lo que la verdad esconde" filmeei lekukoa hartuta datozkigu Zinea Kalean egitasmoaren Altxako proiektzioak. Hilaren 6an, ostirala, Martin Cambell zuzendariaren "Limite vertical" filma pantailaratuko da. Chris O'Donnell eta Tobin Tunney dira K2 mendian girotutako filmaren protagonistak. Hurrengo egunean, larunbata, Sam Raimi zuzendariaren "Premonición" filma eskainiko da. Bizilagunen etorkizuna ezagutzeko telepatiaz baliatzen den neska da filmaren protagonista. Cate Blanchett eta Keanu Reeves dira aktore nagusiak. Emanaldiok Altxako Plaza Gorrian izango dira 22.30etan.



## Beck Anoetan

Hilaren 11n, asteazkena, Beck-ek kontzertua eskainiko du Anoetako Kiroldoan. Estatu Batuetan jaiotako Beck Hansenek 80ko hamarkada amaieran ekin zion musika munduari. 90eko hamarkadan, berriz, lehenengo diskoak grabatu zituen punk, blues edota hip-hop uztartuz. 1996ean kaleratutako "Odelay" diskoak aparteko arrakasta lortu zuen. Arrakasta horren lekuko, Rolling Stone aldizkariak urteko album onenari emandako saria eta Beck-ek eskuratutako bi Grammy sariak, besteak beste. Kontzertua 21.00etan hasiko da.